

EMAKUNDE - EMAKUMEAREN EUSKAL INSTITUTUKO ZUZENDARIAREN 2018KO URRIAREN 1EKO EBAZPENA; HORREN BIDEZ EBATZI DA ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA/EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE SA ERAKUNDEAK JARRAITZEN DUELA “EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LANKIDETZA ERAKUNDEA”REN BEREIZGARRIA IZATEN

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005), otsailaren 16ko 3/2012 Legeak aldatu duenak, ematen dizkion eskumenak baliatuta, zera adierazten du:

AURREKARIAK

Lehenengoa.- ZERBITZU ENPRESA/EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE SA enpresa “Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaz Erakunde” izendatu zuen Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2015eko abuztuaren 31ko ebazpenaren bidez, horretarako otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuak ezartzen dituen eskakizunak betetzen zituelako. Dekretuaren bidez, “Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaz Erakunde”aren irudia sortu zen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005) 41. artikuluan oinarrituta, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko Legearen (otsailaren 5eko 2/1998) esparruan.

Bigarrena.- Otsailaren 11ko 11/2014 Dekretuaren (“Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaz Erakunde” aitortzea arautzen duena) 14.1 artikulua dakar, “bi urterik behin”, egindako aintzatespenak indarrean jarraitzeko “...*lankidetzaz erakundeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekintzak gauzatzen jarraitzen duela egiaztatu beharko dio Emakunde-Emakumearen Euskal*

Erakundeari...”. Artikulu horretan erakundeak aurreko urteetan abiarazitako ekintzen gaineko segimendu-txostena aurkeztu beharko duela jaso da, “...*Txostenean egiaztatu egin behar da aldi horretako planean diseinatutako ekintzen % 70 baino gehiago gauzatu dela...*”, eta beharrezko dokumentazioa eta horiek aurkezteko epeak, emakume eta gizonen berdintasunerako lankidetzarako erakundearen aitortzea izaten jarraitzeko.

ZUZENBIDEAREN OINARRIAK

Lehenengoa.- Urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen), otsailaren 4ko 6/2014 Dekretuak aldatu duenak, 17 f) artikuluan dakar Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari dagokiola Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde autonomoari esleitutako helburuak betetzeko administrazio-ebazpenak ematea.

Bigarrena.- ZERBITZU ENPRESA/EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE SA erakundeak emandako dokumentazioa aztertuta, “Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzarako Erakunde”aren aitortpenarekin jarraitzeko egin beharreko segimendua dela eta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen iritziz hura nahikoa da, erakundeak horretarako beharrezko legezko eskakizunak betetzen baititu.

Hori guztia kontuan hartuta, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak honako ebazpen hau eman du:

EBAZPENA

Baiaesten da ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA/EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS IZENPE SA erakundeak “Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzarako Erakunde”aren aitortpenarekin jarraitzeko beharrezko legezko eskakizunak



betetzen dituela.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 1a.

**Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko
zuzendaria, MIREN IZASKUN LANDAIDA
LARIZGOITIA.**